

5/2021 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
EKAINAREN 8an EGINDAKO BILKURA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria

Ezin etorria adierazi dute:

Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea
Itziar Semberoi Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
Yolanda González García and., Vianako alkatea.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeita bateko ekainaren zortzian, arratsaldeko bostetan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
- 2.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3.- Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.
- 4.- NUKF – La Caixa eta Nafarroako Kutxa fundazioen hitzarmena, 2021eko hiri eremuak berreskuratzeko proiektua.
- 5.- Hiri eremuak berreskuratzeko dirulaguntzen 2021eko deialdiaren oinarriak.
- 6.- Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren eta NUKFren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena, bikote egonkorren erregistro bakarra
- 7.- NUKFren 2021eko Oporrak Bakean Programarako aurreikusitako funtsen esleipena erabakitzeko proposamena.
- 8.- GESERLOCAL erakunde instrumental bihurtzeko egin beharreko jarduketari buruzko informazioa.
- 9.- Lehendakariaren informazioa.
- 10.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Maiatzaren 11ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrrik egin; horrenbestez,

ERABAKI DA:

2021eko maiatzaren 11n egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.

Honako Batzorde eta Kontseiluen berri eman dute:

- **Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerririk koordinatzeko Foroa**, (2021/05/14). Aurten eginen diren kultur programen berri eman zuten.
- **Hautzaroaren araudi berria jorrazteko lantaldea**, (2021/05/20). Hautzaroari buruzko Foru Lege berri bat egiten ari direla jakinarazi zuten eta lantaldean aurkeztutako zirriborroei ekarpenak egiten ari direla.
- **Emakumeen kontrako indarkerian arreta eta prebentzioa eraginkortasunez koordinatzeko jarraipen batzordea**, (2021/05/21). Batzorde horretako ordezkariak jakinarazi zuenez, 2020ko Erakunde Arteko Akordioaren jarraipenari buruzko urteko txostena aurkeztu zuten. Bestalde, Nafarroan "Krisi-zentro" bat sortzeko behararen inguruan aritu ziren sexu indarkeriarekin lotutako kasuak soilik artatuko dituen urteko egun eta ordu guztietan.
- **Nafarroako Estatistika Kontseilua (Osoko bilkura)**, (2021/05/21). Aurreko Estatistika Plana eta abian jarriko dena aztertu zituzten.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua**, (2021/05/24). Informazioa eskuratzeko eskubidearekin lotutako erreklamazioak izapidetu zituzten.
- **Irisgarritasun Unibertsala eta Aukera-berdintasuna sustatzeko kontseilua**, (2021/05/31). Kontseilu berri hau sortu zen. Irisgarritasunaren Plan berria aurkeztu zuten, 11 milioi euroko aurrekontua izanen duena. Federazioak toki administrazioari esleitutako diru-partida eskasa dela adierazi zuen planak dituen asmo handiak eta zeharkakotasuna ikusita.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea**, (2021/06/07). Lanaldiaren murrizketa arautzen duen Foru Dekretuari eginiko aldaketa bati aldeko txostena eman zitzaion. Zehazki, genero indarkeria pairatzen dutenek lanaldiaren murrizketa eskatzeko aukera izatean datza aldaketa. Bestalde, udal igerilekuak egokitzeke epea luzatzea ere adostu zen batzordean.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA.- Batzorde eta Kontseilu Sektorialeko ordezkariak izendatzea.

Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak ordezeko bat izendatzeko eskatu duela jakinarazi dute. Kontseilu horretan, Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakari Sabina García dago izendatua ordezkari gisa.

Honako ordezkoa izendatzea proposatu dute:

- Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua:
 - Berta Enrique Cornago, NUKFko idazkari nagusia (ordezkoa).

ERABAKI DA:

Izendapena adierazitako moduan onestea.

4. PUNTUA.- NUKF – La Caixa eta Nafarroako Kutxa fundazioen hitzarmena, 2021eko hiri eremuak berreskuratzeko proiektua.

Lehendakariak azaldu du beste urte batez La Caixa eta Nafarroako Kutxa fundazioekin lanean aritu direla hiri eremuak berreskuratzeko proiektua egiteko hitzarmen berria sinatzeko. Hitzarmen horri jarraiki, La Caixa eta Nafarroako Kutxa fundazioek 115.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartu dute. NUKFk aldiz, kopuru hori osorik aipatu proiektuan erabiltzeko konpromisoa hartu du eta proiektua egiteko beharrezkoak diren baliabide material eta pertsonal guztiak jartzeko.

ERABAKI DA:

La Caixa eta Nafarroako Kutxarekin hitzarmena onestea, zeina aktari eranskin gisa eransten baitzaio.

5. PUNTUA.- Hiri eremuak berreskuratzeko dirulaguntzen 2021eko deialdiaren oinarriak.

Lehendakariak azaldu du hitzarmenean oinarriturik “hiri eremuak berreskuratzeko dirulaguntzen” deialdia arautuko duten oinarriak egin direla aurreko urteetako baldintza berdinetan.

Deialdiaren xedea da deialdian parte hartzen duten hiri eremu publikoak eta zerbitzu publikoak lehengoratzeko proiektuetan edo jarduketetan erabilitako materiala finantzatzea. Deialdian parte hartu ahal izateko, toki entitateek oinarrietan zehazten diren enplegurako deialdien eta babestutako enplegu sozialaren deialdien bidez kontratatu beharko dituzte proiektuetan parte hartuko duten pertsonak.

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko urriaren 31n amaitzen da eta, gehienez, 2.500 euro jaso ahalko dira. Kopuru hori edo eskatutakoa (hura txikiagoa bada), murriztu egingen dira beharrezkoa den proportzioan baldintzak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera guztiak diruz lagundu ahal izateko.

ERABAKI DA:

Hiri eremuak berreskuratzeko laguntzen 2021eko deialdiaren oinarriak onestea, zeinak aktari eranskin gisa eransten baitzaizkio.

6. PUNTUA.- Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren eta NUKFren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena, bikote egonkorren erregistro bakarra.

Aurreko Batzorde Betearazlean aurreratu zen moduan, jakinarazi da Justiziako Departamentuak lankidetzak-akordio bat sinatzea proposatu ziola NUKFri bikote egonkorrek udaletan ere legezko egin ahal izateko, betiere udal horiek hitzarmenari atxiki ondoren.

Hitzarmen hori Nafarroan bikote egonkorrei lotuta egin diren arau-aldaketek eragin dute. Lehenik, Foru Berria Berrantolatzeke Foru Legeak, Auzitegi Konstituzionalaren Epaiak Bikote Egonkorren Foru Legea konstituzioaren aurkakotzat jo ondoren, ezarri zuen bikote egonkorrek agiri publiko bidez eratu beharko zirela eta Bikote Egonkorren Erregistro Bakar batean inskribatu ahalko zirela publikotasun xedearekin soilik. Aurreikuspen hori oinarritzat harturik, Nafarroako Gobernuaren mendekoa den erregistro hori arautzen duen Foru Dekretua onetsi dute. Dekretu horren bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenaren arabera, Nafarroako Gobernuak lankidetzak-hitzarmenen bidez bikote egonkorren eraketa jasotzen duen agiri publikoa herritar guztien eskura egotea sustatuko du. Aipatu lankidetzak horri hain zuzen ere erantzuten dio proposatzen den hitzarmenak. Bertan, lehenengo baldintzak hitzarmenaren xedea adierazten du: hitzarmenari atxikitzen zaizkion udalerrietako idazkaritzak postua duen enplegatu publikoaren aurrean dokumentu publikoak legezko egitea sustatzea bai eta aipatu erregistroan inskribatzeko eskaerak, hala eskatzen denean, erregistroari berari helaraztea.

Horretarako, bikote egonkorren kide batek, gutxienez, tokian tokiko udalerrian eroldaturik egon beharra du.

Hitzarmenak jasotzen duenaren arabera, Nafarroako Gobernuak Erregistro Bakarrak hitzarmenari atxikitzen zaizkion udalerrien eskura jarriko ditu agiri publikoen ereduak eta behar diren gainontzeko agiriak ere.

Halaber, jakinarazi dute Foru Arau bat izapidetzen ari direla idazki notarialez gain, administrazio publikoek gaitutako enplegatu publiko baten aurrean legezko egindako idazkiak ere erregistroan inskribatu daitezkeen agiri publikotzat jotzeko. Hortaz, aipatu Foru Agindua onetsi eta indarrean sartu arte atxiki ahalko zaio aipatu hitzarmenari.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita, Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, adierazi du hitzarmenaren testuak dituen esapide batzuek ez dutela hizkuntza ez sexista erabiltzen eta egokitu beharko lirakeela. Halaber, espediente horien udal izapidetzearen berri eman dadila eta izapidetze hori ahalik eta gehien erraztu dadila azpimarratu du.

ERABAKI DA:

Lankidetzaz hitzarmena proposatu moduan sinatzea onestea, lankidetzaz hori ahalbidetzen duen Foru Agindua onesten dutenean.

7. PUNTUA.- NUKFren 2021eko Oporrak Bakean Programarako aurreikusitako funtsen esleipena erabakitzeko proposamena

Aurten, aurreko urtean bezala osasun krisiagatik ezin izan denez Oporrak Bakean programa egin, proposatu dute NUKFk Nafarroako Saharar Ordezkaritzarekin duen lankidetzaz hitzarmenaren baitako dirua ANAS GKEak proposatutako proiektu alternatiboari ematea kanpalekuan jarduerak antolatzeko.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

ERABAKI DA:

2.000 euroko ekarpena mantentzea saharar haurren 2021eko udako plan alternatibo horrentzako.

8. PUNTUA.- GESERLOCAL erakunde instrumental bihurtzeko egin beharreko jarduketari buruzko informazioa.

Lehendakariak adierazi du Geserlocal NUKFri atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzeko lanean ari direla eta eman beharreko urratsak aztertzen ari direla; betiere Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak emandako txostenari jarriki; aurreko Batzorde Betearazlearen horren berri eman zen moduan.

Laster, Geserlocal sozietatearen Kontseilua eta Batzar Orokorra bilduko dira eta bertan gaiaren berri emanen dute organo horietan beharrezkoak diren akordioak har ditzaten.

Geserlocalen gerentzia entitatea erakunde instrumental bihurtu ondoren zerbitzuak emateko baldintza ekonomikoak lantzen ari da. Ondorio nagusia izanen da zerbitzuen kostuak BEZik ez duela izanen. Horri dagokionez, Nafarroako Ogasunari txostena eskatuko zaio hori ziurta dezan.

Udan zehar gaia landu egingen da iraileko Batzorde Betearazlearen proposamen bat aurkez daitekeen ikusteko.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

9. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- COVIDaren alorrean polizia koordinatzeko bilerak. Horietan, epidemiaren eboluzioaren eta

hartu beharreko neurri murriztaileen berri ematen dute.

- Toki Administrazioaren Departamentuarekin izandako koordinazio-bilerak.
- Maiatzaren 11n izandako FEMParen Lurralde Kontseilua. Bertan, hainbat gairen berri eman zuten: 2022an eta 2023an gastu-araua ez aplikatzeko aukera; 3.000 milioi euroko funts bat eskatuko da; Next Generation funtsak, horietatik, turismo lekuetarako 1.900 euroko funts bat egonen da; bake epaitegiak justiziako bulego bihurtuko dira; eta emisio gutxiko eremuetarako 1.500 euro emanen dituzte.
- Maiatzaren 13an izandako Trantsizioa kudeatzeko Batzordea. Bertan, Covidaren andui berrien inguruko kezka azaldu zuten eta uztailean bosgarren olatu bat izateko beldurra.
- Maiatzaren 18an Gizarte-erantzukizun Korporatiboari eta Garapen Jasangarriko Helburuei (GJH) buruzko jardunaldia. Federazioak bertan parte hartu du.
- Abiadura-muga berriak aurkezteko prentsaurrekoa, Espainiako Gobernuko Ordezkariekin eta Nafarroako Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren arduradunarekin batera eginikoa.
- Lehendakaria FITUrren izan da Nafarroako ekitaldi instituzionalean.
- KUNA elkartearekin sinatutako hitzarmena.
- La Caixa eta Nafarroako Kutxa fundazioekin izandako bilera hiri eremuak berreskuratzeko deialdia egiteko lankidetzak hitzarmen berria prestatzeko.
- Elizak immatrikulatutako ondasunen taldeak eginiko bigarren bilera. Bertan, Justizia Kontseilariarekin bilera egin dela jakinarazi zuten gaiaren inguruan egiten ari diren jarduketan berri izateko. Nafarroan immatrikulatutako ondasun guztien zerrenda bat egiten ari direla jakinarazi zuten eta prest dutenean Federazioari helaraziko diotela.
- Maiatzaren 27an Nilsak drainatze jasangarriari buruz egindako mintegia.
- Maiatzaren 28an komunitate energetikoen proiektuei buruz izandako bilera.
- Miguel Indurain Fundazioaren presidente berriarekin izandako bilera.
- Nafarroako Gobernuarekin Europako gaien inguruan sinatutako protokoloa Europako finantzazio-aukerei buruzko informazioa jasotzeko.
- Maiatzaren 31n Nafarroako Gobernuko Turismoaren Berrikuntza Zerbitzuko arduradunarekin izandako bilera. Turismo arloan Next Generation funtsen berri eman zioten Federazioari. Nafarroako Gobernuko zeharkako plan bat hizpide izan zuten eskualdeko planak barne hartuko dituen. Horretarako, jakina da 1.900 milioi euro egonen direla eta ministerioak kudeatuko dituela norgehiagokako araubidean. Bilera horretan, elkarlanean jarraitzea adostu zen, batez ere, informazioa jasotzeko.
- Maiatzaren 28an Tracasako arduradunarekin izandako bilera energia garraiatzen duten enpresei jabari publikoa okupatzeagatik tasa bat ezartzeko zer aukera dagoen ikusteko. Jakinarazi dutenez, argindarra garraiatzeko lineak katastroan sartu eta horiengatik lurraldeko kontribuzioa kobratzeko lanetan arituko dira horrek aurretik aipaturiko beste tasa hori ezartzen lagunduko bailuke.
- Ekainaren 24an Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartearekin izandako bilera. Bertan, Federazioari kezka azaldu zion izapidetzen ari den kontsumoari buruzko lege berrian ez direlako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen udal bulegoak agertzen.
- Ekainaren 4an, Parlamentuan kultur jarduerarekin lotutako saio batean parte hartu zuen lehendakariak.
- Eskubide Sozialetako Departamentuarekin izandako zenbait bilera aparkatzeko txartelei buruzko araudi autonomiko bat onesteko helburuz txartel horiek era homogeneoan egin eta kontrolatzeko.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

10. PUNTUA- Galde-eskeak.

Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, energia enpresei ezarritako tasari dagokionean jakinarazi du Tafallan onetsi duten ordenantza fiskalari sare elektrikoaren enpresak helegitea jarri diola. Helegitea aintzat hartu eta helegitea izan duen ordenantzaren puntua aldatuko dute. Horri buruzko informazio guztiaren berri emanen duela esan du.

Bestalde, Next Generation funtsen alorrerako Zabala enpresaren kontratazioaren inguruan galdetu du. Jakinarazi diotenez, kontratazioa abian da eta laster toki entitate guztiei helaraziko zaie aholkularitza zerbitzu horren inguruko informazioa bai eta lehenengo informazio-buletina ere finantzazio lerroekin, abian dauden deialdiekin eta abar.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, galdetu du herriko jaien inguruan aurreikusitako Batzorde Betearazlea zergatik ez zen egin azkenean. Lehendakariak azaldu du oraingoz ez dela bilera hori deitu osasun egoeraren eboluzioaren eta Osasun Departamentuaren diagnostikoaren zain daudelako. Fabo jaunak galdetu du ez ote zen egokia izanen berriro Osasun eta Barneko Departamentuekin biltzea. Lehendakariak zehaztu du dagoeneko, Osasun Departamentuaren bitartez, Gobernuari azalpenak eskatu dizkiola eman duten informazioaren inguruan. Esan du, halaber, norbaitek gaiaren inguruan galdetzen badu Osasun Departamentuari bideratuko duela galdera eta apirilaren 22an departamentu horrekin izandako bileran azalduko informazioa emanen diola. Esan du Osasun Departamentuak adierazi duela emandako datu guztiak egiazkoak direla eta gomendioa dela herriko jairik ez ospatzea. Hala ere, adierazi du txertaketa aurreikusi baino azkarrago doala eta departamentuak hori ere kontuan hartu beharko lukeela. Dena dela, egoki ikusten bada beste bilera bat eskatuko duela esan du.

Lehendakariak zalantza du talde immunitatea ulertzerakoan eta immunitate hori lortzeko eduki behar den babes mailaren inguruan.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, esan du Castillo jaunak adierazitakoarekin ados dagoela eta adierazi du Gobernu dela irizpideak ezarri behar dituen.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, esan du Tuterako jaien astean zenbait ekitaldi programatu dituela.

Castillo jaunak uste du osasuna arriskuan jartzen dituzten egoerak ekidin behar direla eta toki entitate bakoitzak egoera baloratu behar duela.

Toquero jaunak alkateen ardurari jarri du azpimarra, zuhurtzia eskatu du baina jarduera ekonomikoaren suspertzearekin bateragarri eginez.

Maya jaunak, Iruñeko Udaleko alkateak, Nafarroako Gobernuarekin egindako bilerari erreferentzia egin dio, adierazi du bere konpromisoa izan zela isilpeko jairik ez egitea. Era berean, Federazioari datu errealak emateko eskatu du.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, kezka azaldu du bidal daitekeen mezuarekin; munduko pandemia bat dela adierazi du eta herritarrak kontzientziatu behar dituztela. Uste du jaietan ekitaldiak antolatzeak nahasketa sor dezakeela.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin batera sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN
ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.